



ORIOKUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2010eko urtarrilaren 26a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:05

BUKATZEKO ORDUA: 19:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Iñaki Garcia Aranbarri zinegotziak (EB-B/Aralar) ez du parte hartzen eta ez du ezin etorria adierazi.

Aztergai-zerrenda irakurri aurretik, udal idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Bixente Lasa zinegotziak (EA) bat egiten duela Karmele Belasko (talde mistoa), Joseba Goiburu (talde mistoa), Leire Zinkunegi (talde mistoa) eta Iñaki Iturain (Aralar) zinegotziek aurkeztu duten gaztetxearen aldeko mozioarekin; bestalde, idazkariak proposatzen du beste bi gai sartzeari, aztergai-zerrendatik kanpo, alde aurretik gehiengo absolutuz urgentziazkoak izendatu ondoren: bat, Orioko udal planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. areako —Dike— kontzertazio-hitzarmenari lehen onarpena emateari buruzkoa; eta bigarrena, Orioko udal planeamendurako Arau Subsidiarioetako 20. sektoreko —Aizperro— kontzertazio-hitzarmenari lehen onarpena emateari



buruzkoa; bi gai horiek Udaleko Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzordearen aldeko diktamena jaso zuten, 2010eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Aztergai-zerrendan bi gai horiek sartzeko proposamena bozkatzen da; bertaratutako udalbatzarkideek **AHO BATEZ (HAMAR BAIEZKO BOTO)** jotzen dituzte urgentziazkotzat eta, beraz, onartu egiten da proposamena.

AZTERGAI ZERRENDA

1. Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2009ko urriaren 27an egindako ohiko bilkurako eta azaroaren 9ko ezohiko bilkurako akten zirriborroak.
2. Onartzea, egoki bada, Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— kirol pistak egiteko proiektua, Enplegurako eta Toki Jasangarritasunerako Estatuko Funtsaren kargura diru laguntzak eskuratzeko; proiektua GESTIUR SLko Rodrigo Milla Azkona eta Mikel Pereda Goikoetxea arkitektoek idatzi dute.
3. Udal baimena ematea, egoki bada, Orioko Herri Ikastola Kooperatiba Elkarteari, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— dagoen eskola erabilerako partzelaren gaineko lurrazal eskubidea hipotekatzeko.
4. Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko plana, 2008-2012 epealdirako.
5. Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko udalerriko lur ez urbanizagarrian dauden 'sakabanatuen' izendapen berriei.
6. Onartzea, egoki bada, talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek eta Aralar taldeko Iñaki Iturain zinegotziak aurkeztutako mozioa, Orion gaztetxe bat izatea aldarrikatuz.
7. Eskariak eta galderak.

ESAN-EGINAK

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2009KO URRIAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO ETA AZAROAREN 9KO EZOHIKO BILKURAKO AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:



ONARTZEA Udalbatzarrak 2009ko urriaren 27an egindako ohiko bilkurako eta azaroaren 9ko ezohiko bilkurako aktak.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— KIROL PISTAK EGITEKO PROIEKTUA, ENPLEGURAKO ETA TOKI JASANGARRITASUNERAKO ESTATUKO FUNTSAREN KARGURA DIRU LAGUNTZAK ESKURATZEKO; PROIEKTUA GESTIUR SLKO RODRIGO MILLA AZKONA ETA MIKEL PEREDA GOIKOETXEA ARKITEKTOEK IDATZI DUTE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; obren kontrata bidezko exekuzio-aurrekontua 813.302,06 eurokoa da (BEZ barne), nahiz eta obren lizitazio-aurrekontua, Enplegurako eta Toki Jasangarritasunerako Estatuko Funtsaren kargura osorik finantzatutakoa, 537.185 eurokoa den, gehienez.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2010eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, eta ikusita Lurralde Kooperazioaren Estatuko idazkariaren 2009ko azaroaren 2ko Ebazpenak xedatutakoa (urriaren 26ko 13/2009 Legegintzako Errege Dekretuz sortutako Enplegurako eta Toki Jasangarritasunerako Estatuko Funtsaren kargurako baliabideak tramitatzeko baldintzak eta eskari-orrien eredia onartzen duena), gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— kirol pistak egiteko proiektua, Enplegurako eta Toki Jasangarritasunerako Estatuko Funtsaren kargura diru-laguntzak eskuratzeko, eta **ONARTZEA**, beraz, proiektatutako inbertsio hori egitea; proiektua Gestur SLko Rodrigo Milla Azkona eta Mikel Pereda Goikoetxea arkitektoek idatzi dute; obren kontrata bidezko exekuzio-aurrekontua 813.302,06 eurokoa da (BEZ barne), nahiz eta obren lizitazio-aurrekontua, Enplegurako eta Toki Jasangarritasunerako Estatuko Funtsaren kargura osorik finantzatutakoa, 537.185 eurokoa den (BEZ barne), gehienez.

Emandako botoa azaltzeko, Leire Zinkunegi zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, proiektua onartzeko tramitazioa azkarregia izan delako eta ez dutelako denborarik izan proiektu horri alternatibak aurkezteko; hala ere, adierazten du bere talde politikoak ez daukala eragozpenik Munto inguruan kirol pistak egiteko eta ez daukala ezer Estatuari diru-laguntzak eskatzearen kontra ere.



3.- UDAL BAIMENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEARI, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— DAGOEN ESKOLA ERABILERAKO PARTZELAREN GAINEKO LURRAZAL ESKUBIDEA HIPOTEKATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; idatzia Iñaki Beraza Elustondok aurkeztu du, Orioko Herri Ikastola kooperatiba elkartearen izenean, eta hipoteka-maileguaren kopurua, gehienez, 2.400.000 eurokoa izango da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko urtarrilaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, eta, Orioko udalbatzarrak 2008ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran onartutako baldintza-orriaren (Orioko Herri Ikastola kooperatiba elkarteari Orioko Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— lursail baten gainean ikastetxea eraikitzeke azalera eskubidea emateko baldintza-orria) 5. baldintzan, e) atalean, ezarritakoa betez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), eta Lasa (EA), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

UDAL BAIMENA EMATEA Orioko Herri Ikastola kooperatiba elkarteari Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— dagoen eskola erabilerarako lursailaren gaineko lurrazal eskubidea hipotekatzeko, eraikuntza-lanak finantzatzeko eskatuko diren, eta gehienez 2.400.000 euroko kopurua izango duten, maileguen berme gisa.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA, 2008-2012 EPEALDIRAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Planak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aldeko txostena jaso du 2009ko azaroaren 19ko dataz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Euskara, Hezkuntza eta Merkataritza batzorde Informatzaileak 2009ko urriaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Orioko Udalaren euskararen erabilera normalizatzeko plana, 2008-2012 epealdirako.

Emandako botoa azaltzeko, Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du kontrako botoa eman duela ez dakielako Planak zer dioen; adierazten



du ez duela jaso planaren gaztelaniazko bertsiorik eta jaso duen dokumentua guztiz ulertezina zaiola, euskara hutsean dagoelako.

Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta, labur, honako hau erantzuten dio Jesus Rodriguez zinegotziak esandakoari: Jesus Rodriguez jaunak ez badaki planaren edukia zein den, horren erantzukizuna berea dela, Udaleko euskara teknikariak propio eskaini baitzion laguntza, planaren edukia zehatz-mehatz azaltzeko; Jesus Rodriguezek eskaintza hori baliatu ez badu, berea da ardura eta ez beste inorena.

5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIKO UDALERRIKO LUR EZ URBANIZAGARRIAN DAUDEN ‘SAKABANATUEN’ IZENDAPEN BERRIEI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; izendapen berriak honako hauek dira: “Benta aldea”, “San Martin auzoa”, “Txanka aldea”, “Ortzaika aldea”, “Botaleku aldea” eta “Sariako ola”.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ekintza Ekonomikoetako eta Enpleguiko batzorde informatzaileak 2010eko urtarrilaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko udalerriko lur ez urbanizagarrian dauden ‘sakabanatuen’ izendapen berriei: “Benta aldea”, “San Martin auzoa”, “Txanka aldea”, “Ortzaika aldea”, “Botaleku aldea” eta “Sariako ola”.

2.- Espediente administratiboa **JENDAURREAN JARTZEA** 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, interesatuek aukera izan dezaten aztertzeko eta alegazio edo oharrak aurkezteko.

Behin jendaurreko epea pasata, inolako alegazio edo oharririk aurkeztu ez bada, behin betikotzat joko da lehen onarpena, bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK ETA ARALAR TALDEKO IÑAKI ITURAIN ZINEGOTZIAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ORION GAZTETXE BAT IZATEA ALDARRIKATUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Bixente Lasa zinegotziak (EA) adierazi du bat egiten duela mozioaren edukiarekin; mozioak, hitzez hitz, honela dio:

GAZTETXE BATEN ALDEKO ALDARRIKAPENA



Badira urte batzuk herriko zenbait gazte gaztetxe baten aldeko aldarrikapena gauzatzeko ahaleginean hasi zirenetik. Bide horretan pausu batzuk eman dituzte, eta bidean gero eta gazte gehiago batu dira gure aldarrikapen horretan, eta pixkanaka gero eta herritar gehiagoren atxikimendua eskuratzea ere lortu dute. Horren froga nabarmena dira azken bi urteotan ospatutako gazte festa jendetsu eta parte hartzaileak.

Inguruko herri askotan gaztetxearena dagoeneko errealitate bat da; gainera, kultur eskaintzaren ikuspegitik emankorra.

Orion hamasei urte bitarteko gaztetxoek badute elkartzeko tokia, badute beren gaztelekua. Ba, haiek bezala, hamaseitik gorako gazteek ere elkartzeko toki egoki bat behar dutela aldarrikatzen dute. Toki bat beren aisialdia antolatzeko balioko diena, eta beren aisialditik, beren sormenetik herriari kultur eskaintza bat egiteko baliatuko dutena. Toki bat non herriko gazte guztiek sarbidea izango duten, non aniztasuna baliotzat hartuko den eta, beraz, non inor ez den baztertua izango.

Arrazoi horiengatik, Orioko Udalbatzarrak mozio honen bidez, bat egin nahi du gazte horien aldarrikapenarekin.

Hauxe da, beraz, aldarrikapen zehatza:

Orioko udalbatzak adierazten du aurrerantzean Orioko Udala ahalegindu egingo dela herriko gazteek eskatzen duten gaztetxea gauzatzeko bidean aurrerapausoak ematen, epe laburrean Oriok herriko gazte guztientzat balioko duen gaztetxe bat izan dezan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek eta Aralar taldeko Iñaki Iturain zinegotziak aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen termino beretan.

Aztergai-zerrendatik kanpo, Udalbatzarrak ondoko erabakiak hartu ditu, aldez aurretik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**], urgentziazkotzat jo ondoren:

8.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 14. AREAREN —DIKE— KONTZERTAZIO HITZARMENARI.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; kontzertazio-hitzarmena area horretako hainbat lurjabeak aurkeztu dute, lurzoruaren %76 baino gehiagoren jabe direnak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onarpena eman zion, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioak berrikusteko dokumentuaren Testu Bateginari (54. GAO, 2008ko martxoaren 17koa); testu horretan 14. areari —Dike— dagokion araudi partikularrean lur urbano izaera ematen dio eta “dentsitate ertaineko bizilekurako zona” kalifikazioa ematen dio; ingurua garatzeko, konpentsazioko exekuzio pribatu sistema ezartzen du eta sistema hori aldatua izan da ‘ope legis’ (Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Hirugarren Xedapen Iragankorra) kontzertazio sistemagatik.

Orioko udalbatzarrak, 2008ko irailaren 18an egindako ezohiko bilkuran, behin betiko onarpena eman zion Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. arearen —Dike— Ordenamendu Urbanorako Plan Bereziari (31. GAO, 2009ko otsailaren 17koa).

Orioko Udalak behin betiko onarpena eman dio Arau Subsidiarioetako 14. areako Hirigintzako Jarduketa Programari 2009ko martxoaren 17ko 139/2009 alkate-dekretuaren bidez (64. GAO, 2009ko apirilaren 6koa), eta bertan kontzertazioko exekuzio pribatuko sistema ezartzen da.

Eusko Legebiltzarreko 2/2006 Legearen 160.2 artikulua ezartzen du kontzertazio sistemaren bidezko jarduketak, beti, hitzarmen bat sinatzea eskatzen duela; hitzarmen horretan lurjabeen %50ak bere egin behar ditu bertan jasotzen diren konpromiso urbanistikoak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2010eko urtarrilaren 25ean emandako diktamena ikusita, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. artikuluan eta Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa betez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. arearen —Dike— Kontzertazio Hitzarmenari.

2.- Kontzertazio-hitzarmena **JENDAURREAN JARTZEA** hogeitun laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, alegazioak aurkezteko aukera emateko.

9.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 20. SEKTOREAREN —AIZPERRO— KONTZERTAZIO HITZARMENARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; kontzertazio-hitzarmena sektore horretako hainbat lurjabeak aurkeztu dute, lurzoruaren %50 baino gehiagoren jabe direnak.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onarpena eman zion, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioak berrikusteko dokumentuaren Testu Bateginari (54. GAO, 2008ko martxoaren 17koa); testu horretan agertzen da 20. sektorearen —Aizperro— hirigintza jarduketa sistema konpentsaziokoa izango dela, baina, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Hirugarren Xedapen Iragankorraren arabera, Legea indarrean jartzen denetik, egokitu egin behar dira jarduketa sistemak eta, beraz, aurreikusitako konpentsazio sistema aldatu egiten da eta, haren partez, kontzertazio sistema ezarri.

Udalbatzarrak, 2009ko urriaren 27an egindako ohiko bilkuran, behin betiko onarpena eman zion Orioko Arau Subsidiarioetako 20. sektoreko —Aizperro— ekimen pribatuko Plan Partzialari; plan partzial hori NASIPA SL entitate merkantilak sustatu du eta Patxi Gastaminza Santa Coloma arkitektoak idatzi du.

Eusko Legebiltzarreko 2/2006 Legearen 160.2 artikulua ezartzen du kontzertazio sistemaren bidezko jarduketak, beti, hitzarmen bat sinatzea eskatzen duela; hitzarmen horretan lurjabeen %50ak bere egin behar ditu bertan jasotzen diren konpromiso urbanistikoak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2010eko urtarrilaren 25ean emandako diktamena ikusita, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. artikuluan eta Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa betez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 20. sektorearen —Aizperro— Kontzertazio Hitzarmenari.

2.- Kontzertazio-hitzarmena **JENDAURREAN JARTZEA** hogeituneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, alegazioak aurkezteko aukera emateko.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du Joxean Carrera Makazaga zinegotzi-ohia hil berri dela gaur bertan eta, beraz, udalbatzarrari proposatzen diola erabaki bat hartzea haren heriotzagatik dolumina agertzeko eta haren familiari eta gertukoei laguntasuna eskaintzeko une samin hauetan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Iñaki Iturain zinegotziaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

DOLUMINA AGERTZEA Joxean Carrera Makazaga zinegotzi-ohiaren heriotzagatik eta **LAGUNTASUNA ESKAINTZEA** haren familiari eta gertukoei, une samin hauetan.



ORIOKOU DALA

Udalbatzarraren ohiko bilkura
2010/01/26

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu ondoren, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,